# HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILEKO LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ARGIBIDE OSAGARRIAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO MAISU-MAISTREN KIDEGORA SARTZEKO AUKERATZE-PROZEDURAREN PROBAREN GARAPEN ETA KALIFIKAZIOARI BURUZKOAK.

**(2007-03-16ko Agindua, 2007-03-23ko EHAA)**

**1.-OPOSIZIO-FASEAREN PROBA.**

- **1.1.-IZANGAIEN AURKEZPENA ETA PROGRAMAZIOAK EMATEA.**
  - **AURKEZPENAK EGITEKO ETA PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK EPAIMAHAIEI ENTREGATZEKO EGOITZAK.**
- **1.2.-PROBAREN "A " ATALA.**
  - **PROBA IDATZIA EGITEKO EGOITZA.**
- **1.3.-PROBAREN "B " ATALA.**
  - **PROBAREN "B " ATALA EGITEKO EPAIMAHAIEN EGOITZAK.**
    - **"B1" ENTREGATUTAKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN DEFENTSA.**
    - **"B2"UNITATE DIDAKTIKO BAT PRESTATU, AZALDU ETA, HALA BALEGOKIO, DEFENDITZEA.**
    - **"B3" ARIKETA PRAKTIKOA (MUSIKAREN ESPEZIALITATEA).**

**2.- OPOSIZIO-FASEKO PROBAREN KALIFIKAZIOA.**

## 1.-OPOSIZIO-FASEAREN PROBA.

- **1.1.-IZANGAIEN AURKEZPENA ETA PROGRAMAZIOAK EMATEA.**

*Ekainaren 16an, 10:00etan, hasiko da izangaiak epaimahaietara agertzeko ekitaldia, argibide hauetan adierazten diren egoitzetan.

*Aurkezpena egingo den egoitzetan hasi baino ordu erdi lehenago, gutxienez, egotea gomendatzen da.

*Izangaiak, bere NAN, gidatzeko baimena edo pasaportearekin, derrigorrean joan beharko du aurkezpen-ekitaldira eta ez da izangaiak ahalordea eman dion beste pertsona bat agertzea onartuko.


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

*Aurkezpen-ekitaldia hasi ondoren, ez dagoen izangaia aukeratze-prozesutik at geratuko da, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak oniritzia eman dien ezinbesteak bultzaturiko kasuetan izan ezik.

*Izangaiek joan beharko dute programazio didaktikoak beren epaimahaiei aurkeztu eta entregatzeko ekitaldietara eta, horregatik, programazio didaktikoa entregatu beharko dioten epaimahaia aldez aurretik identifikatzea gomendatzen da. Ez da onartuko izangaiek programazio didaktikoa beraiena ez den epaimahai bati aurkeztu eta entregatzea.

*Izangai bakoitzak bere datu pertsonalekin osatuko ditu I. eranskinaren ereduaren bi ale. Ale horietako bat epaimahaiari entregatutako programazio didaktikoaren azala izango da eta, bestea, programazioa entregatzean aurkeztuko dio epaimahaiari eta honek zigilatua itzuliko dio, programazioa entregatu izana egiaztatzeko.

Informazio gehiago nahi izanez gero eta I. eranskina lortzeko, ALBISTEA Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, “ekainaren 16ko probari buruzko informazioa “ web orrian kontsultatu.

***IZANGAIEI EMAN BEHARREKO ARRETA**

Izangaiek, behar bezala justifikatutako ezinbesteko arrazoiengatik ezin badiete epaimahaien deiei erantzunik eman, derrigorrean jakinarazi beharko diete epaimahaiburuei, zuzenean edo Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, behar den erabakia har dadin. Epaimahairi jakinarazi ezean edo honek ez baditu arrazoi horiek kontuan hartzen, izangaia aukeratze-prozesutik at geratuko da.

- o **PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAK EPAIMAHAIEI AURKEZTU ETA ENTREGATZEKO EGOITZAK.**

**Eguna: 2007ko ekainaren 16a**
**Ordua: 10:00ak**
**Egoitzak:** informazio gehiago izateko, ALBISTEA Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orri honetan kontsultatu: “programazioa aurkeztu eta entregatzeko ekitaldia izango den tokiak “.

- **1.2. PROBAREN “A” ATALA.**

*Ekainaren 23an, goizeko 10:00etan, BECen hasiera emango zaio oposizio-faseko probaren “A” atalari.

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

*Proba idatzi hori hasi baino ordu erdi lehenago, gutxienez, BECen egotea gomendatzen da.

*Epaimahai bakoitzak izango du bere izangaientzat erreserbatutako espazio bat. Izangai bakoitzak dagokion epaimahaian, eta ez beste batean, egin beharko du azterketa. Izangaiak azterketa egin behar duten epaimahaiari erreserbatutako espazio eta tokietan kokatuko dira. Epaimahaiak probaren aurretik edo proba egin bitartean identifikatuko ditu izangaiak. Izangaiek aukeratze-prozesuan esleitu zaien epaimahaian bakarrik egin ahal izango dute proba idatzia eta, horregatik, proba egin behar duten epaimahaia aldez aurretik non dagoen egiaztatzea gomendatzen da.

*Izangaiak NAN, gidatzeko baimena edo pasaportearekin, eta idazteko tresnekin agertuko dira. Ez da beste material osagarririk onartuko.

*Azterketan ez da kalkulagailurik, ordenagailurik, agenda elektronikorik…onartuko, material laguntzaile hori behar denean epaimahaiak espresuki baimena ematen duen kasuetan izan ezik.

*Azterketan ezin izango da sakelako telefonorik erabili.

*Espezialitate desberdinetako gaien izenburua duen orri bat emango zaio izangaiari (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailako web orrian argitaratuta dagoen bertsio brbera), azterketan espezialitate bakoitzean garatu behar direnak ausaz aukeratu ondoren, identifikatu ahal izateko.

*Izangaiak material hau erabili ahal izango du bakarrik azterketa egiteko:

-Idazteko tresnak.

-Gaiak garatzeko behar bezala identifikatutako azterketa-orriak, antolatzaileek ekarriko dituztenak.

-Fotokopiak azterketaren gai ofizialen enuntziatuarekin, antolatzaileek ekarriko dituztenak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailako web orrian argitaratuta dagoen bertsio brbera).

Beste edozein material erabiltzeko, epaimahaiaren baimen zehatza beharko da.

*Epaimahaiak ausaz aterako ditu izangaiek aukeratu ahal dituzten gaiak eta izangai bakoitzak bi ordu izango ditu, aurreko gaietako bat garatzeko.

- **PROBA IDATZIA EGITEKO EGOITZA.**

**Eguna: 2007ko ekainaren 23a**
**Ordua: 10:00ak**
**Egoitza: B.E.C.**
Informazio gehiago lortzeko, ALBISTEA Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren “oposizioaren A atala egingo den tokia “ web orrian kontsultatu.


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

- **1.3.-PROBAREN "B" ATALA.**

*Ekainaren 25etik aurrera hasiko da oposizio-faseko probaren "B " atala, epaimahaien egoitzetan.

*Epaimahai bakoitzak bere egoitzaren iragarki-taulan eta Sailaren web orrian iragarriko du oposizio-faseko probaren "B " atala hasiko den eguna, baita izango den tokia ere.

*Probaren "B " atala izango den ikastetxeetan argitara eman beharko dira izangaiei egiten zaien lehen eta ondorengo deialdiak, hasi baino hogeita lau ordu lehenago gutxienez. Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren web orrian (http://www.irakasle.net) emango dira argitara, informazioaren ondorioetarako. Banakako proben kasuan, epaimahaiak proba egiten hasteko ezarritako orduetan agertu beharko dute egun bakoitzerako deitutako izangaiek.

- **PROBAREN "B " ATALA EGITEKO EPAIMAHAIEN EGOITZAK.**

**Egoitzak:** informazio gehiago nahi izanez gero, ALBISTEA Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren "oposizioaren B atala izango den tokiak " web orrian kontsultatu.

- **"B1" ENTREGATUTAKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN DEFENTSA.**

*Izangaiek, aurkezpen-ekitaldian programazioa didaktikoa epaimahaiari entregatu ondoren, epaimahaiaren aurrean defenditu beharko dute horretarako deitzen zaienean. Ordu erdi bat, gehienez ere, izango dute programazioa ahoz defenditzeko eta epaimahaiak izangaiari galderak egin eta harekin eztabaidatu ahal izango du, azalpena bukatu eta hamabost eguneko gehienezko denboran.

*Izangaiak aurkezpen-ekitaldian epaimahaiari entregatu ziona bezalako kopia bat erabili ahal izango du bakarrik programazioa ahoz defenditzeko.

*Programazio guztiek **zenbakitutako 15 unitate didaktiko, gutxienez,** eta 50 orriko gehienezko luzera eduki beharko dituzte.

* Izangaiak ezin izango du programazioa epaimahaian defenditu eta eztabaidatu aurretik prestatu.


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

- **"B2"UNITATE DIDAKTIKO BAT PRESTATU, AZALDU ETA, HORRELA BALEGOKIO, DEFENDITZEA.**

*"B2" ariketaren ordez aurkeztutako unitate didaktiko bati buruzko txostena egitea eskatu duten eta aukera hori onartu zaien izangaiek ez dute "B2" ariketa egin beharko. Eskaera hori onartzen ez bazaie, "B2" ariketa egin beharko dute derrigorrean.

* "B2" ariketa ***"unitate didaktiko bat prestatu, azaldu eta, horrela balegokio, defenditzean*** datza. "B2" ariketa, hots, programaziotik ausaz ateratako hiru unitate didaktikoetatik bat prestatu, azaldu eta, horrela balegokio, defenditzea, egin behar duten izangaiei denbora bat emango zaie unitatea didaktikoa azaldu eta epaimahaian defenditu aurretik prestatzeko.

* Unitate didaktiko hori aukeratzeko, izangaiak, zozketa egin ondoren, ez du une honetan zein unitate didaktiko azaldu behar duen erabaki behar; izan ere, prestatzeko duen denboran (epaimahaian azaldu aurretik) aukeratu ahal izango du eta, B proba garatu behar duen unean, epaimahaiari jakinaraziko dio.

*Izangaiak nahi dituen adina material erabili ahal izango du unitate didaktikoa prestatzeko eta berak ekarri beharko ditu.

Horrela definitzen da material laguntzailea: izangaiak beharko duen edo erabili nahi duen edozein material, objektu, tresna…berak ekarri beharko duela kontuan hartuta.

Adibide gisa: aurkezpenak power point-en egin nahi badira, izangaiak ordenagailua, *cayón*, …ekarri beharko ditu.

* Aipatutako unitate didaktikoa egitean, lortu nahi diren ikaskuntza-helburuak, edukiak, planteatu behar diren irakatsi eta ikasteko jarduerak eta ebaluatzeko prozedurak zehaztu beharko dira.

*Unitate didaktiko hori azaldu eta definitzeko nahi duen material laguntzailea, berak ekarri beharko duena, erabili ahal izango du, baita orri bat (alde batetik) baino gehiagokoa izango ez den gidoi bat ere, azalpena bukatzean epaimahaiari entregatuko diona.

*"B1" eta "B2" ariketak egin nahi dituzten izangaiek epaimahaiari entregatu zioten programazioaren kopiarena bezalako bat erabili ahal izango dute; beraz, programazioa defenditzen hasiko dira, ordu erdi bat gehienez ere, eta, ondoren, haien programaziotik ausaz ateratako hiru unitate didaktikoetatik aukeratutako bat azaldu eta defendituko dute, 45 minututan gehienez ere. Azkenik, epaimahaiak, gehienez ere, hamabost minutu edukiko ditu izangaiari galdetzeko eta harekin eztabaidatzeko.


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

- **“B3” ARIKETA PRAKTIKOA (MUSIKAREN ESPEZIALITATEA).**

*Musika espezialitateko izangai guztiek “B3” ariketa praktikoa egin beharko dute, epaimahaiak emandako abesti baten ahots-interpretazioa izango dena. Izangaiak hogei minutu izango ditu pieza prestatzeko, tresnaren laguntzarik gabe interpretatuko dena. Izangaiak ekarritako diapasoi bat erabili ahal izango da.

**2.- OPOSIZIO-FASEKO PROBAREN KALIFIKAZIOA.**

Probaren bi ataletako bakoitzaren kalifikazioa 0 puntutik hamarrera bitartekoa izango da. Oposizio-fasearen kalifikazio globala lortzeko, A atalak azken kalifikazioaren % 40 izango du eta B atalak azken kalifikazioaren % 60.

- “A” atala.
    - Kalifikazioa
        - “A” atalaren ariketa idatzia: 0 puntutik 10era.
    - Azken kalifikazioan duen eragina
        - Azken kalifikazioaren % 40.

- “B” atala
    - Kalifikazioa
        - 1. ariketa, “B1”. Kalifikazioa: 0 puntutik 10era.
        - 2. ariketa, “B2”. Kalifikazioa: 0 puntutik 10era.
        - 3. ariketa, “B3”. Kalifikazioa: 0 puntutik 10era.
    - Azken kalifikazioan duen eragina
        - Bakarrik “B1” eta “B2” ariketak egingo diren espezialitateak: Bi ariketak oposizio-fasearen kalifikazioaren % 30 izango dira.
        - “B1”, “B2” eta “B3” ariketak egingo diren Musika espezialitatea: ariketa bakoitza oposizio-fasearen kalifikazioaren % 20 izango da.

- *Oposizio-probaren azken nota globala 0 puntutik 10era artekoa izango da.*

**LEHIAKETA-FASERA SARTU AHAL IZATEKO, IZANGAIEK BOST PUNTU EDO GEHIAGO LORTU BEHARKO DITUZTE OPOSIZIO-FASEAN.**

**PUNTUAZIO GLOBALA**

- ***Puntuazio globalerako, horrela baloratuko dira oposizio- eta lehiaketa-faseak: % 60 oposizio-fasea eta % 40 lehiaketa-fasea.***


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

# INSTRUCCIONES COMPLEMENTARIAS DE LA DIRECCIÓN GENERAL DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN SOBRE EL DESARROLLO Y CALIFICACIÓN DE LA PRUEBA DEL PROCEDIMIENTO SELECTIVO PARA EL INGRESO EN EL CUERPO DE MAESTROS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.

**(O. 16-03-2007-BOPV 23-03-2007)**

**1.-PRUEBA DE LA FASE DE OPOSICIÓN**

- **1.1.-PRESENTACIÓN DE ASPIRANTES Y ENTREGA DE PROGRAMACIONES**
    - **SEDES PARA REALIZAR LAS PRESENTACIÓN Y ENTREGA DE PROGRAMACIONES DIDÁCTICAS A LOS TRIBUNALES**
- **1.2.-PARTE "A" DE LA PRUEBA.**
    - **SEDE PARA REALIZAR LA PRUEBA ESCRITA.**
- **1.3.-PARTE "B" DE LA PRUEBA**
    - **SEDES DE LOS TRIBUNALES PARA DESARROLLAR LA PARTE " B" DE LA PRUEBA.**
        - **"B1" DEFENSA DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ENTREGADA.**
        - **"B2"PREPARACIÓN, EXPOSICIÓN Y EN SU CASO DEFENSA DE UNA UNIDAD DIDÁCTICA.**
        - **"B3" EJERCICIO DE CARÁCTER `PRÁCTICO (ESPECIALIDAD DE MÚSICA).**

**2.- CALIFICACIÓN DE LA PRUEBA DE LA FASE DE OPOSICIÓN.**

## 1.-PRUEBA DE LA FASE DE OPOSICIÓN

- **1.1.-PRESENTACIÓN DE ASPIRANTES Y ENTREGA DE PROGRAMACIONES**

*El acto de presentación de los aspirantes ante los Tribunales comenzará a las 10 horas del día 16 de Junio en las Sedes que se señalan en estas Instrucciones.

*Se recomienda estar en presencia física en la sedes de la presentación como mínimo ½ hora antes del inicio de dicha presentación.

Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

*Al acto de presentación el/a aspirante asistirá con carácter obligatorio provisto de su D.N.I., carnet de conducir ó pasaporte, no siendo válida la comparecencia de otra persona con algún tipo de apoderamiento.

*Una vez comenzado el acto de presentación el/a aspirante que no se encuentre en el mismo quedará excluido del proceso selectivo, salvo en los casos de fuerza mayor debidamente justificados y apreciados por el Tribunal.

*Los aspirantes deberán de asistir al acto de presentación y entrega de las programaciones didácticas ante sus propios Tribunales por lo que se recomienda identificar previamente el Tribunal ante el que deberán de entregar la programación didáctica. No se admitirá una presentación y entrega de programación didáctica por parte de los aspirantes ante un Tribunal distinto del suyo.

*Cada aspirante cumplimentará con sus datos personales dos ejemplares del modelo del Anexo I. Uno de dichos ejemplares será la portada de la programación didáctica entregada a su Tribunal, el otro ejemplar lo presentará al Tribunal a la entrega de la programación y se le devolverá sellado por parte del Tribunal como acreditación de dicha entrega.

Para más información y obtener el Anexo I, consultar la NOTICIA en la web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación "Información sobre la prueba del día 16 de junio ".

***ATENCIÓN AL ASPIRANTE**

Cuando los aspirantes por causas de fuerza mayor debidamente justificadas no pudieran comparecer a los llamamientos de los Tribunales deberán notificarlo obligatoriamente a los Presidentes de dichos Tribunales, bien directamente o a través de la Dirección General de Personal, a fin de que se emita la decisión que corresponda. En ausencia de notificación del hecho al Tribunal o con apreciación negativa por parte del mismo el/a aspirante quedará excluido/a del proceso selectivo.

- **SEDES PARA REALIZAR LA PRESENTACIÓN Y ENTREGA DE PROGRAMACIONES DIDÁCTICAS A LOS TRIBUNALES**

**Día: 16 de Junio del 2007**
**Hora: 10:00 horas**
**Sedes:** Para más información, consultar la NOTICIA en la web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación "Lugares de celebración del acto de presentación y entrega de la programación ".


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

- **1.2.-PARTE "A" DE LA PRUEBA.**

*El día 23 de Junio a las 10:00 horas de la mañana, comenzará la parte "A" de la prueba de la fase de la oposición en el B.E.C.

*Se recomienda estar en presencia física en la sede del B.E.C. como mínimo ½ hora antes del inicio de dicha prueba escrita.

*Cada Tribunal tendrá un espacio reservado para sus aspirantes. Cada aspirante deberá de examinarse en el Tribunal que le corresponda y no en otro. Los aspirantes se ubicarán en los espacios y lugares reservados al Tribunal ante el que deban examinarse. Dicho Tribunal procederá a su identificación antes o durante el transcurso de la prueba. Los aspirantes solamente podrán realizar dicha prueba escrita ante el Tribunal que tengan asignado en el proceso selectivo, por lo que se recomienda comprobar previamente la ubicación del Tribunal ante el que deberán realizar dicha prueba.

*Los aspirantes se presentarán provistos del D.N.I., carnet de conducir, ó pasaporte, y de útiles para escritura. No se permitirá ningún otro tipo de material complementario.

*No se admitirán el uso de calculadoras, ordenadores, agendas electrónicas,……… en la realización del examen, salvo autorización expresa del Tribunal para aquellos casos en que sea necesario la utilización de dicho material auxiliar.

*No se permitirá el uso de teléfonos móviles durante el examen.

*Se le proporcionará al aspirante una hoja con el título de los temas (la misma versión que está publicada en la web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación) de las distintas especialidades a fin de que, tras la elección al azar de los que han de ser desarrollados en el examen en cada especialidad pueda identificarlos.

*El/a aspirante para la realización del examen únicamente dispondrá del siguiente material:

-Útiles de escritura.
-Hojas de examen debidamente identificadas para desarrollar los temas correspondientes que serán aportadas por la organización.
-Fotocopias con el enunciado de los temas oficiales del examen aportadas por la organización (la misma versión que está publicada en la web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación).
Para la utilización de cualquier otro tipo de material se requerirá autorización expresa del Tribunal.

*Extraídos al azar por el Tribunal los temas entre los que pueden elegir los/as aspirantes, cada aspirante dispondrá de un tiempo de dos horas para desarrollar uno de los temas anteriores.


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

- **SEDE PARA REALIZAR LA PRUEBA ESCRITA.**

**Día: 23 de Junio del 2007**
**Hora: 10:00 horas**
**Sede: B.E.C.**
Para más información, consultar la NOTICIA en la web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación "Lugar en el que se va a celebrar la parte A de la oposición ".

- **1.3.-PARTE "B" DE LA PRUEBA**

*La parte "B" de la prueba de la fase de oposición comenzará a partir del día 25 de Junio en las Sedes de los Tribunales.

*Cada Tribunal anunciará en el Tablón de Anuncios de su sede y en la página web del Departamento el día de inicio de la parte "B" de la prueba de la fase de oposición y el lugar donde tendrá lugar la misma.

*El primero y sucesivos llamamientos de los/as aspirantes deberán hacerse públicos en los centros en los que se celebre la parte "B" de la prueba con veinticuatro horas, al menos, de antelación al comienzo de la misma. Asimismo se harán públicos en la página web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación (http://www.irakasle.net) a efectos informativos-. En el caso de pruebas individuales los/as aspirantes convocados para cada día, deberán estar presentes a la hora fijada por el Tribunal como hora de inicio de sus actuaciones.

- **SEDES DE LOS TRIBUNALES PARA DESARROLLAR LA PARTE "B" DE LA PRUEBA.**

**Sedes:** Para más información, consultar la NOTICIA en la web del Departamento de Educación, Universidades e Investigación "Lugares de celebración de la parte B de la oposición ".

- **"B1" DEFENSA DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ENTREGADA.**

*Los/as aspirantes, habiendo realizado la entrega de la programación didáctica al Tribunal en el acto de presentación, deberán de proceder a defenderla ante el Tribunal cuando sean convocados para ello. Para dicha defensa oral de la programación tendrán ½


Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

hora como máximo, y el Tribunal podrá debatir y preguntar al aspirante durante un tiempo máximo de quince minutos tras la exposición.

*El/a aspirante para la defensa oral de dicha programación solamente podrá utilizar una copia idéntica a la que entregó al Tribunal en el acto de presentación.

*Todas las programaciones deberán de contener **un mínimo de 15 unidades didácticas numeradas** y tener una extensión máxima de 50 folios

* El/a aspirante no dispondrá de tiempo previo para la preparación de la programación didáctica antes de su defensa y debate ante el Tribunal.

- **"B2"PREPARACIÓN, EXPOSICIÓN Y EN SU CASO DEFENSA DE UNA UNIDAD DIDÁCTICA.**

*Los/as aspirantes que hayan solicitado la sustitución del ejercicio "B2" por el informe correspondiente sobre una unidad didáctica presentada y se les hubiere estimado dicha opción, estarán exentos de la realización del ejercicio "B2". Caso de haber sido desestimada dicha solicitud deberán realizar obligatoriamente el ejercicio "B2".

*El ejercicio "B2" consiste en la ***"Preparación, exposición, y en su caso defensa, de una unidad didáctica"***. A los aspirantes que deban realizar el ejercicio "B2", es decir, la preparación, exposición y en su caso defensa de una unidad didáctica de entre tres extraídas al azar de su propia programación, se les dará un tiempo para la preparación de la unidad didáctica antes de su exposición y defensa ante el Tribunal.

* Para la elección de esta unidad didáctica, el aspirante/a, una vez hecho el sorteo no tiene porqué decidir en ese momento qué unidad didáctica va a exponer; es decir, en el tiempo que dispone para su preparación (antes de su exposición ante el Tribunal), podrá tomar su elección, y comunicársela al Tribunal en el momento en el que tenga que desarrollar la prueba B.

*Para la preparación de la unidad didáctica anterior el/a aspirante podrá utilizar cuantos materiales desee debiendo aportarlos por su cuenta.

Se considera material auxiliar: Cualquier material, objeto, utensilio,…, que el/a aspirante considere que necesita ó quiera utilizar, teniendo en cuenta, que deberá aportarlo él/ella mismo/a.

A modo de ejemplo; Si se desean realizar presentaciones en power point, el/a aspirante deberá traer consigo el ordenador, el cayón,…….

* En la elaboración de la citada unidad didáctica deberán concretarse los objetivos de aprendizaje que se persiguen con ella, sus contenidos, las actividades de enseñanza y aprendizaje que se van a plantear y sus procedimientos de evaluación.

*En la exposición y defensa de dicha unidad didáctica podrá utilizar el material auxiliar que considere oportuno y que deberá aportar él/ella mismo/a, así como un guión que no excederá de un folio (por una cara), y que se entregará al Tribunal al término de aquélla.

*Aquellos/as aspirantes que deban de realizar tanto el ejercicio "B1" como el "B2", podrán también contar ante el Tribunal con una copia idéntica de la programación entregada en su día al Tribunal, comenzarán por tanto a defender la programación durante ½ hora como máximo, y a continuación durante 45 minutos como máximo realizarán una exposición y defensa de la unidad didáctica elegida por ellos mismos entre tres extraídas al azar de su propia programación. Finalmente el Tribunal podrá utilizar quince minutos como máximo para preguntar y debatir con el/a aspirante.

- **"B3" EJERCICIO DE CARÁCTER `PRÁCTICO (ESPECIALIDAD DE MÚSICA).**

*Todos los/as aspirantes de la especialidad de Música deberán de realizar el ejercicio de carácter práctico "B3" que consistirá en una interpretación vocal de una canción facilitada por  Tribunal. El/a aspirante tendrá veinte minutos para preparar la pieza que será interpretada sin acompañamiento de instrumento. Se podrá disponer de un diapasón de tenedor aportado por el/a aspirante.

## 2.- CALIFICACIÓN DE LA PRUEBA DE LA FASE DE OPOSICIÓN.

La calificación de cada una de las dos partes de la prueba será de 0 a 10 puntos.
A los efectos de obtener la calificación global de la fase de oposición, tendrá la Parte A un peso del 40% de la calificación final y la Parte B un peso del 60% de la calificación final.

- Parte "A"
  - Calificación
    - Ejercicio escrito de la  Parte "A" de 0 a 10 puntos.
  - Peso en la calificación final
    - Peso del 40% de la calificación final.

- Parte "B"
  - Calificación
    - 1º Ejercicio "B1".Calificación 0 a 10 puntos.
    - 2º Ejercicio "B2".Calificación 0 a 10 puntos.
    - 3º Ejercicio "B3".Calificación 0 a 10 puntos. (Solamente especialidad de Música)

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es

- Peso en la calificación final
  - Especialidades en que solo se realizarán los ejercicios" B1" y "B2", ambos ejercicios tendrán un peso de un 30% de la calificación de la fase de oposición.
  - Especialidad de Música en la que se realizan los ejercicios "B1", "B2" y "B3", cada ejercicio tendrá un peso del 20% de la calificación de la fase de oposición.

- *La nota final y global de la prueba de oposición será de 0 a 10 puntos.*

**PARA PODER ACCEDER A LA FASE DE CONCURSO, LOS/AS ASPIRANTES TENDRÁN QUE OBTENER UNA PUNTUACIÓN IGUAL O SUPERIOR A CINCO PUNTOS EN LA FASE DE OPOSICIÓN.**

**PUNTUACIÓN GLOBAL**

- ***La ponderación de las puntuaciones de las fase de oposición y concurso para formar la puntuación global será de un 60% para la fase de oposición y de un 40% para la fase de concurso.***

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 83 85 / 86 - Fax 945 01 83 35 / 36 - E-mail: educauei@ej-gv.es